



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

29/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 29koa, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga autolikidatzeko erabili beharreko 670, 671 eta 672 ereduak onesten dituena.

2013. urteaz geroztik, oinordetzen eta dohaintzengatik egin behar diren autolikidazioen aurkezpena apirilaren 15eko 361/2013 Foru Aginduak arautu du, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren autolikidazioa egiteko 670, 671 eta 672 ereduak onesten dituenak.

Harrez gero, asko dira oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak izan dituen aldaketak, eta, horien artean, bi azpimarratu behar ditugu.

Lehenengoak Eusko Legebiltzarraren lege batean du jatorria, hain zuzen ere, ekainaren 15eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, zeinak Euskadiko Autonomia Erkidego osorako orokortzen baitu Euskal Zuzenbide Zibilaren figura, garrantzi handiko aldaketa bat ekarriz bai Euskadiko oinordetza zuzenbidean bai, bereziki, Gipuzkoakoan. Legeria substantiboaren aldaketa horrek hainbat figura jasotzen zituen, baita horiek orokortzea ahalbidetu ere, hala nola komisario bidezko testamentua, edo oinordetza itunak, eraginkortasuna unean bertan edo post mortem izan dezaketenak.

Erreforma hori guztia zerga ordenamenduan txertatu behar izan zen, eta, bereziki, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan (baina baita beste zerga batzuetan ere), eta hori pixkanaka egin zen, hainbat fasetan, neurrien premiari erreparatuta eta kontuan hartuta Gipuzkoak, inguruko lurralde historikoek ez bezala, ez zeukala Euskal Zuzenbide Zibilean araututakoak bezalako foru zuzenbide zibileko instituzioek ageri duten erregulazio historikorik.

Zerga erreforma hori 3 foru arau hauen bitartez gauzatu zen:

— 7/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena.

— 4/2016 Foru Araua, azaroaren 14koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzen duena.

— 1/2018 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, zerga arau batzuetan aldaketak sartzen dituena, eta Gipuzkoako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzeko lana osatu zuena.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren bigarren aldaketa nagusia Ekonomia Itunean araututa dauden konexio puntuena da. Zergaren araudi aplikagarria zein den eta hura ordainarazteko eskumena zer Administrazioak duen zehaztea izan zuen helburu. Horretarako, abenduaren 28ko 10/2017 Legea onetsi zen, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duena.

Geroago, konexio puntu horiek berak Gipuzkoako zerga araudian sartu ziren, gure araudia noiz den aplikagarria eta Gipuzkoako Foru Aldundiak noiz duen zerga ordainarazteko eskumena zehazteko, hau da, eskuarki «barne ituna» deitu ohi dena egin zen. Hori egiteko, xedapen hau onetsi zen: 1/2018 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 19koa, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, eta Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen dituena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean abenduaren 28ko 10/2017 Legeak sartu dituen aldaketak haien barruan txertatzeko.

Araudian izandako aldaketa horiek jaso beharra dagoenez, egun indarrean dauden 670, 671 eta 672 ereduak osorik aldatzea komeni da.

Bestalde, foru agindu berri honen bidez sartzen den aldaketa nagusia 670, 671 eta 672 ereduak aurkezteko moduari buruzkoa da. Orain arte, eredu horiek paperean baino ezin ziren aurkeztu. Foru agindu hau argitaratutakoan, ordea, bide telematikoz ere aurkeztu ahal izango dira ereduak, Zergabidea plataformaren bitartez.

Alabaina, eredu horien berezitasuna kontuan hartuta, kasu batzuetan paperean bakarrik egin ahal izango da aurkezpena, eta kasu horiek dira zerga egitatea eskritura publikoan dokumentatzen denean, gozamina azkentzen denean eta ibilgailuak eskuratzen direnean.

Guztiarekin ere, zalantzarik ez dago eredu horien aurkezpen telematikoa gaitzea aurrerapen handia dela aurreko egoerarekin alderatuta, aurkezpena errazten baitu

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 670, 671 eta 672 ereduak onestea.

Bat. 670 eredu onesten da, «Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga. Oinordetzen autolikidazioa» izenekoa, foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen dena.

Bi. 671 eredu onesten da, «Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga. Dohaintzen autolikidazioa» izenekoa, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasotzen dena.

Hiru. 672 eredu onesten da, «Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga. Bizitza aseguruaren autolikidazioa» izenekoa, foru agindu honetan III. eranskin gisa jasotzen dena.

Lau. Aipatutako I., II. eta III. eranskin horietan jasotzen dira ereduak paperean aurkezteko garaian entitate laguntzailearentzat beharrezkoak diren aleak, 3. artikuluko lehen apartatuaren b) letran eta laugarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera, bai eta ereduak betetzeko jarraibideak ere.

2. artikulua. 670, 671 eta 672 ereduak aurkeztera behartuak.

Bat. Ohiko bizilekua Espainian duten zergadunak daude behartuta, obligazio pertsonalarengatik, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztera, honako kasuotan:

- a) «Mortis causa» eskurapenetan edo edozein oinordetza titulu bidez egindakoetan, baldin eta sortzapenaren egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Gipuzkoan badago.
- b) Bizitza aseguruaren onuradunek heriotza kasuetan diru kopuruak jasotzen dituztenean, baldin eta sortzapenaren egunean aseguratuaren ohiko bizilekua Gipuzkoan badago.
- c) Ondasun higiezinaren eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasun horiek Gipuzkoan badaude. Ondasun higiezinak atzerrian egonez gero, sortzapenaren egunean dohaintza-hartzailearen ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

Ondorio horietarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 314. aipatzen dituen baloreen doako eskualdaketak.

- d) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, baldin eta sortzapenaren egunean dohaintza-hartzailearen ohiko bizilekua Gipuzkoan badago.

Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, kausatzailearen bizilekua atzerrian badago, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko da zergadunaren bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

Bi. Orobat, zergadunak atzerrian baldin badu ohiko bizilekua, dagokion ereduak aurkeztu beharko du, obligazio errealararengatik, honako kasuotan:

- a) Edozein motatako ondasun eta eskubideen eskurapenetan, baldin eta, Euskadin kokatutako ondasun eta eskubideen balioa lurralde erkidean kokatutakoena baino handiagoa izanik, Gipuzkoan kokatutakoena balioa beste bi lurralde historikoetako edozeinetan kokatutakoena baino handiagoa bada.

Ondorio horietarako, ondasunak eta eskubideak lurralde jakin batean daudela ulertuko da, lurralde horretan kokatuta daudenean, bertan erabil daitezkeenean edo han bete behar direnean.

- b) Bizitza aseguruaren kontratuetatik eratorritako kopuruak jasoz gero, kontratua Gipuzkoan egoiliartuta dauden aseguru-etxeekin egin denean, edo kontratua Gipuzkoan izenpetu denean bertan jarduten duten atzerriko entitateekin.

3. artikulua. 670, 671 eta 672 ereduak nola aurkeztu eta diru-sarrera nola egin.

Bat. Modu hauek daude 670, 671 eta 672 ereduak aurkezteko:

- a) Bide telematikoa, Internet bidez, «Zergabidea» plataforma erabilia, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera Plataforma horrek aukera emango du, baita ere, aurkeztu beharreko autolikidazioen zirriborroak prestatu eta gordetzeko.

Zergabidea plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Bertara joateko, beste bi bide hauek ere erabili daitezke: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofiziala (<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna>).

Dena den, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin hitzarmena sinatu duten kolektiboek web zerbitzu batzuk izango dituzte eskuragarri Zergabidea plataforman.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honen eranskinetan ageri direnetatik dagokion ereduaren diseinura egokitua, aurkezteko arrazoia zein den.

Euskarriak hiru ale izango ditu:

a') Administrazioaren alea.

b') Interesdunaren alea.

c') Entitate laguntzailearen alea.

Interesdunek bi modutan eskuratu dezakete paperezko euskarria: eredia PDF formatuan inprimatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>), edo, bestela, zuzenean «Zergabidea» plataformatitik inprimatuz, betiere dagokion eredia bete eta gero.

Orobat, eredu horiek Gipuzkoan baimendutako estankoetan ere eskura daitezke.

Bi. Foru agindu honen xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitakoa kenduta, 670, 671 eta 672 ereduak ezingo dira bide telematikoak aurkeztu kasu hauetan:

a) Zerga egitatea eskritura publiko batean dokumentatu denean.

b) Zerga egitatea gozamen bat azkentzea denean.

c) Zerga egitatea ibilgailu bat eskuratzea denean.

Hiru. Aurkezpena bide telematikoak egiten bada emaitza ordaintzekoa izanik, autolikidazioa ez da aurkeztutzat joko harik eta diru-sarrerak bitarteko elektronikoen bidez egin arte, ordainketa-pasabidea erabilita, abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera (1074/2008 Foru Agindua, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordainketa-pasabidearen bidez ordaintzea arautzen duena).

Lau. Aurkezpena paperean egiten bada emaitza ordaintzekoa izanik, inprimakia aurkeztu baino lehen autolikidazioaren zenbatekoa ordaindu beharko da abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduan aipatzen diren entitate laguntzaileetako batean. Hori egin ondoren, zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuko Herritarren Arretarako bulegoetan aurkeztu ahal izango dute eredia eta hari dagokion dokumentazioa.

Bost. Aurkezpena paperean egiten bada ordaindu beharreko kuotarik izan gabe, eredia eta dokumentazioa zuzenean aurkeztuko dira Ogasun eta Finantza Departamentuko Herritarren Arretarako bulegoetan.

4. artikulua. 670, 671 eta 672 ereduak aurkezteko epea.

Bat. Zergadunek epe hauetan aurkeztuko dute autolikidazioa:

a) «Mortis causa» eskurapenetan edo edozein oinordetza titulu bidez egindakoetan, bizitza aseguruaren kontratuengatik heriotza kasuetan onuradun gertatzen direnenak barne, urtebeteko epean, kausatzailearen heriotza egunetik edo heriotzaren deklarazioa irmo bihurtzen den egunetik aurrera, edo, kasua bada, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunetan zergaren sortzapena gertatzen den egunetik aurrera.

Epe hori bera aplikatuko zaie gozameduna hiltzean gauzatu behar diren gozamen eskurapenei, jabaria «inter vivos» egintzen bitartez zatitu arren.

b) Gainerako kasuetan, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, egintza edo kontratua gauzatu edo egin ondorengo egunetik aurrera.

Bi. Komisarioak gozamen eskubideagatik autolikidatzeko duen betebeharra eragotzi gabe, testamentu ahalordearen menpeko herentzietan ezingo da autolikidaziorik aurkeztu harik eta testamentu ahalordea modu guztiz edo partez errebokaenezinean erabili arte, edo hura azkentzeko dauden gainerako arrazoietakoa bat gertatu arte.

5. artikulua. Autolikidazioekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Bat. Zerga sortu duen egintza edo kontratua dokumentatzen duen agiri notarial, judicial, administratibo edo pribatuaren jatorrizko alea eta kopia soila aurkeztu behar dute zergadunek. Agiri horretan zehaztu behar da tributuaren zerga oinarrian sartu den ondasun edo eskubide bakoitzaren benetako balioa. Ondasun higiezinak eskualdatzen direnean, ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako esleitutako erreferentzia katastrala eta zenbaki finkoa jaso beharko dira agiri horietan.

Horrez gain, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

A. «Mortis causa» eskurapenen kasuan, agiri hauek erantsiko dira:

a) Kausatzailearen heriotza agiria eta Azken Nahien Erregistro Orokorrak emandako ziurtagiria. Orobat, kausatzailearen eta haren oinordekoen edota legatitudunen nortasun agiriaren fotokopia atxikiko da, salbu eta agirien zenbakiak lehendik aurkeztutako dokumentu publikoetan ageri direnean eta haien adina zein den aintzat hartu behar ez denean. Gainera, kausatzailearekiko ahaidetasun maila frogatu beharko da, familia liburua eta/edo bestelako egiaztagiriak aurkeztuta, ahaidetasuna mailarik urrunenekoa denean izan ezik.

b) Testamentu xedapenak, halakorik badago, edo horren ezean, oinordekoen deklarazioari buruzko lekukotza. Testamenturik gabeko oinordetzetan, oinordekoen deklarazioa judiciala egin gabe badago edo nabaritasun aktarik eman ez bada, ustezkoen zerrenda bat aurkeztuko da kausatzailearekin duten ahaidetasuna adierazita.

c) Kentzen diren zama, karga, zor eta gastuen frogagiriak eta, hala badagokio, bai finantza entitateetan irekitako kontuen saldoei eta bai Burtsan kotizatzen ez duten entitate juridikoetako kapital partaidetzen balio teorikoari dagozkienak. Ibilgailuen kasuan, zirkulazio baimenaren eta fitxa

teknikoaren fotokopia erantsi behar dira.

d) Oinordetzan sartutako ondasun higiezinak kausatzaileak eskuratzeko tituluaren frogagiria. Horretarako, ondasun eta eskubideen eskritura publikoen fotokopia aurkeztu beharko da, salbu eta agiri publikoak aurkeztu eta horietan ondasunen deskripzioa eta titulua jasota ageri direnean.

e) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, desgaitasun eta mendekotasun mailak frogatzeko 63. artikuluan aipatzen dituen ziurtagiriak.

B. Dohaintzetan eta «inter vivos» egiten diren kostu gabeko gainerako eskurapenetan, hauek erantsiko dira:

a) Dohaintza-emaiaren eta dohaintza-hartzaileen nortasun agiriaren fotokopia, salbu eta agirien zenbakiak lehendik aurkeztutako dokumentu publikoetan agertzen direnean eta haien adina zein den aintzat hartu behar ez denean. Gainera, kausatzailearekiko ahaidetasun maila frogatu beharko da, familia liburua eta/edo bestelako egiaztagiriak aurkeztuta, ahaidetasuna mailarik urrunenekoa denean izan ezik.

b) Kentzen diren zama, karga eta zorren frogagiriak. Ibilgailuen kasuan, zirkulazio baimenaren eta fitxa teknikoaren fotokopia erantsi behar dira.

C. Aseguru kontratuengatik jasotako kopuruen kasuan, hauek erantsiko dira:

a) Kausatzaileak hitzartutako kontratuen ale bana, edo, aseguru kolektiboa izanez gero, aseguru-entitateak emandako ziurtagiria, zenbat jasoko den eta onuradunak zein diren adierazi behar duena.

b) Erregistro Zibilak emandako heriotza agiria. Gainera, kausatzailearekiko ahaidetasun maila frogatu beharko da, familia liburua eta/edo bestelako egiaztagiriak aurkeztuta, ahaidetasuna mailarik urrunenekoa denean izan ezik.

c) Onuradunaren eta kausatzailearen nortasun agiria.

d) Aseguruaren polizan onuradunak ez badira berariaz eta zehazki aipatzen legezko oinordekoengana bidaltzen duelako, beharrezkoa izango da kausatzailearen testamentu-xedapenak aurkeztea, halakorik bada, azken nahien ziurtagiriarekin batera. Testamenturik ez badago, horren ordez, oinordekoak deklaratzeko dituen auto judiziala edo notario-akta aurkeztuko da.

D. Zergaren foru arauak 19. artikularen 1. apartatuan aurreikusten duen murriztapena aplikagarria denean, beharrezkoa da aurkeztea bai errolda agiria eta bai bizikidetzarena, kasuan kasuko udalak eginak, etxebizitza eskualdatu aurreko bi urteetan eskuratzailerak kausatzailearekin edo doako eskualdatzailearekin etenik gabe bizi izan dela frogatzeko; horrek ez du eragozten bizikidetzaren frogatzea zuzenbidean onartuta dagoen beste edozein bide erabilita.

Bi. Autolikidazioa aurkeztean subjektu pasiboak salbuetsizat hartzen badu eskurapena zergaren foru arauko 5.1 artikuluan xedatutakoaren babesean, agiri hauek erantsi behar ditu:

a) Nekazaritza gaietan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen Departamentuak luzatutako ziurtagiria. Bertan titularra identifikatu behar da, eta jasota utzi eskualdatutako finka Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan inskribatuta dagoela.

b) Bai eskualdatzailea eta bai eskuratzzailea dagokien zentsu fiskalean alta emanda egotearen frogagiriak.

c) Eskualdatzailea nekazaritza jardueragatik Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta emanda egotearen frogagiria. Eskuratzzailearen alta eskaera ere erantsi beharko da.

Hiru. Autolikidazioa aurkezteko ezarrita dagoen epearen barruan, zergadunek artikuluko honen aurreko apartatuetan jasotakoaren arabera erantsi beharreko frogagiriak aurkeztu behar dizkiote Ogasun eta Finantza Departamentuari. Dokumentazio hori foru agindu honen 3. artikuluan xedatutako eran aurkeztuko da.

Dokumentazioa ez bada aurkezten, bidezko zehapena ezarriko da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek, xedatutakoari jarraituz.

Xedapen gehigarri bakarra. *Subjektu jakin batzuek modu telematikoan aurkeztea 670, 671 eta 672 ereduak.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin hitzarmena formalizatu duten kolektiboetako subjektuei ez zaie aplikatuko 3. artikuluko bigarren apartatuan aurreikusitako murrizketa.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrak gabe geratzen dira foru agindu honetan jasotakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, apirilaren 15eko 361/2013 Foru Agindua, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren autolikidazioa egiteko 670, 671 eta 672 eredu berriak onartzen dituena.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 29a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(585)

I ERANSKINA



II ERANSKINA



III ERANSKINA

